

Modèle CCYC : ©DNE

Nom de famille (naissance) :


(Suivi s'il y a lieu, du nom d'usage)

Prénom(s) :

N° candidat :  N° d'inscription :

(Les numéros figurent sur la convocation.)

Né(e) le :  /  /



1.1

## Évaluation Commune

**CLASSE** : Première

**VOIE** :  Générale  Technologique  Toutes voies (LV)

**ENSEIGNEMENT** : Basque

**DURÉE DE L'ÉPREUVE** : 1h30

Niveaux visés (LV) : LVA **B1-B2** LVB **A2-B1**

Axes de programme : **Axe 3. « Art et pouvoir »**

**CALCULATRICE AUTORISÉE** :  Oui  Non

**DICTIONNAIRE AUTORISÉ** :  Oui  Non

Ce sujet contient des parties à rendre par le candidat avec sa copie. De ce fait, il ne peut être dupliqué et doit être imprimé pour chaque candidat afin d'assurer ensuite sa bonne numérisation.

Ce sujet intègre des éléments en couleur. S'il est choisi par l'équipe pédagogique, il est nécessaire que chaque élève dispose d'une impression en couleur.

Ce sujet contient des pièces jointes de type audio ou vidéo qu'il faudra télécharger et jouer le jour de l'épreuve.

**Nombre total de pages** : 3

# Baccalauréat général et technologique

## Basque

### Classe de première

#### Epreuve 2 : Compréhension de l'écrit et expression écrite (3<sup>e</sup> trimestre)

<b>Niveau visé</b> LVB : A2-B1	<b>Durée de l'épreuve</b> 1 h 30	<b>Barème 20 points</b> CE : 10 points EE : 10 points
-----------------------------------	-------------------------------------	---

L'ensemble du sujet porte sur l'axe 3 du programme « Art et pouvoir ».

Il s'organise en deux parties :

- 1- Compréhension de l'écrit
- 2- Expression écrite

#### 1- Compréhension de l'écrit (10 points)

**Titre du document :** Monumentuak

Ondoko galderei euskaraz erantzun.

Zer aipatzen du testu zati honek ?

Bi dokumentuak nola lotu daitezke « Artea eta boterea » ardatzari ?

#### Erdi Aroko katedralak

Parisko Saint Denis basilika eta Chartres-ko katedrala eraikin gotikorik eredugarrienak dira. Pariskoan sortu zen estiloa, eta Chartresen jo zuen goia. Liburu honek (« *Chartres and the birth of the cathedral* », T. Burckhardt) batetik besterako bidea kondatzen digu. Ez da arkitektura-liburu tekniko bat, baina estilo gotikoaren sorrerak behar izan zituen aurrerapen teknologikoak aztertzen ditu. Ez da historia-liburu huts bat, baina XII. eta XIII. mendeetan katedralen sorreran gertatutakoa ere azaltzen du. Ez da arte-liburu bat, baina katedral gotikoaren jaiotza artearen ikuspuntutik ere azaltzen du.

Asko idatzi da gotikoari buruz, eta, batez ere, Chartresko katedralari buruz. Teoria asko plazaratu dira haren esanahi mitikoari buruz, eta asko hitz egin da haren espiritualtasunari buruz.

Saint Denis basilikaren berrikuntza mugarri bat da. Arkitektura gotikoaren hasieratzat hartzen da. *Suger* abadeak oso eliza handia eta argitsua nahi zuen, eta horrek arazo batzuk ekartzen zituen. Leihoz betetako paretek ezin zioten eutsi sabaiko bobeden\* pisuari.

Benetako erraldoiak eraiki zituzten; Erdi Aroko estandarretarako, ia zerura iristen ziren. Estrasburgoko katedralaren dorrea 142 metro garai da, eta berrehun urtez izan zen munduko eraikinik altuena. Kanpoaldetik ez ezik, barrualdetik begiratuta ziren nabarmenki altuak tenplu haiek. Saint Denis basilikaren beraren nabe nagusiaren bobeda 29 metrora dago; Chartres-ko eta Amiens-eko katedralenak, adibidez, 37 eta 42 metroko altueran daude. Erdi Aroko pertsona batek ezin zuen munduan barrualdeko espazio handiagorik aurkitu katedral gotikoak baino.

Eraikin izugarri handiak izateaz gain, boterearen ikur bihurtu ziren katedralak. Agintari zibilen aurrean kleroak egindako erakustaldi bat ziren; elizbarrutien\* garrantziaren adierazle ere bihurtu ziren. Apezpiku guztiek ondoko hirietakoak baino katedral ikusgarriagoa nahi zuten. XIII. mendean, Frantziaren iparraldean, katedralik handiena egiteko lehia bat jarri zen martxan.

Katedralen eraikuntza handikeria bat bilakatu zen, eta lehia hori mugaraino eraman zuten. Beauvais-ko katedralaren kasua esanguratsua da. Amiens-ekoa baino handiagoa eraiki nahi izan zuten, eta 1248an bobeda nagusia erori zitzaien eraikuntza prozesuaren erdian. Lanari ekin zioten, eta, 1573an, berriz ere erori zen. Katedrala bukatu gabe geratu da, eta gaur egun zutik dirau altzairuzko euskarri erraldoi batzuei esker.

2013/03/01 Roa Zubia, Guillermo (moldatua)

### [Elhuyar aldizkaria](#)

\*Bobeda : voûte

\*Elizbarruti : diocèse

## **2- Expression écrite (10 points)**

Ondoko bi gaietarik **bat** garatuko duzu euskaraz, 12 bat lerrotan.

### **Sujet A**

Zure ikastetxearekin ateraldi bat egin eta monumentu bat bisitatu duzue : jauregi, gaztelu, katedrala... Konda ezazu bisita nola izan den eta zer senditu duzun.

### **Sujet B**

Aitzinatetik gaureguneraino, gizakiak funtzio ezberdinak dituzten monumentuak eraiki ditu mundu guzian. Uste ote duzu monumentuak eraikitzeke joera hau baliagarria eta interesgarria dela ? Zergatik ?